
Irudia - Imagen: Esther Galarza
ANDRAZKOEN FABORE
ANDRETXEA
EIBARKO UDALA
Sorginak! - ¡Brujas!
Irailak 24 Septiembre - Urriak 24 Octubre
PORTALEA KULTUR ETXEA
Bista-Eder, 10 20600 Eibar
EmPoderArte
Asociación Internacional
de Mujeres Artistas
EM PODER ARTE

# EmPoderArte-ri buruz

EmPoderArte emakume artisten nazioarteko elkarteak emakumeen problematikarekin eta horrek gizartean dituen inplikazioekin lotutako gaiei buruz hausnartzen du bere erakusketetan. Gure helburu nagusiak emakume artistak ezagutaraztea, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bilatzea eta indarkeria matxistaren aurka borrokatzea dira.

*EmPoderArte AIMA*

Europak, XV. mendetik XVIII. mendera bitartean, aldaketa politiko eta sozial sakonak izan zituen: estatuen eratzea; lurrez jabetzea eta jabetza pribatua sortzea; nekazarien matxinadak; erlijio-gerrak... Krispazio handiko testuinguru hartan, emakumeei jazarri egin zieten eta sorginkeriaz, magia beltzaz eta deabruak hartuta egoteaz salatu. Hark guztiak beldurrezko giroa sortu zuen. Oro har, salaketa jasan zuten emakumeak sendatzaile, emagin, edo azti ziren, edo lurren gozamena zuten. Emakume haietako asko bakarrik zeuden, alargunak ziren, gizonik gabeak, menderakaitzak eta errebeldeak. Akusazioak interes pertsonaletatik egiten ziren eta eldarnio kolektibora gehitzen ziren.

Kalkuluen arabera, 250.000 emakume inguru akusatu zituzten sorginkeriaz, eta guztiak erre ez bazituzten ere, gehienek irainak eta torturak jasan zituzten. Ez zegoen emakumerik salbu. Pagaburu izan ziren eta gainerako herritarrentzat gerta zitekeenaren erakusle. Bestalde, garai huraxe izan zen kapitalismoaren ernamuina.

*Komisariak*

# Sobre EmPoderArte

EmPoderArte es una asociación internacional de mujeres artistas que reflexionan, a través de sus exposiciones, sobre temas relacionados con las problemáticas de las mujeres y sus implicaciones sociales. Nuestros principales objetivos son la visibilidad de las mujeres artistas, la búsqueda de la igualdad entre hombres y mujeres y la lucha contra la violencia machista.

*EmPoderArte AIMA*

La Europa del siglo XV al XVIII sufrió profundos cambios políticos y sociales con la formación de estados, la apropiación de las tierras y la creación de la propiedad privada, las revueltas del campesinado, la guerra de religiones... En este contexto de gran crispación, las mujeres fueron perseguidas y acusadas de brujería, de practicar magia negra, de estar endemoniadas. Todo esto creó un clima de terror. Generalmente eran mujeres que hasta entonces habían ejercido como curanderas, parteras, hechiceras, o bien aquellas que tenían el usufructo de las tierras. Muchas eran mujeres solas, viudas, sin hombre, indómitas y rebeldes. Las acusaciones se vertían desde intereses personales que se sumaban al delirio colectivo.

Se calcula que aproximadamente 250.000 mujeres fueron acusadas de brujería, y si bien no todas fueron quemadas, la gran mayoría sufrieron vejaciones y torturas. Ninguna mujer estaba a salvo. Fueron el chivo expiatorio y elemento aleccionador para el resto de la población, y germen del nacimiento del capitalismo.

*Las Comisarias*

# Sorginak!

Erakusketa honetan, ez duzue ikusiko emakumerik erratz gainean igota; bai, ordea, adineko emakume nekazarien tratu txarren salaketa. Ez duzue ikusiko, halaber, emakume satanikorik umeak bizirik kozinatzen; bai, ordea, Espainian urtero gertatzen diren 50etik gora hilketa matxistengatik amorratuta dauden emakumeak. Ez dago akelarre satanikorik; bai, ordea, Eliza katolikoak sorginkeria leporatu zieten milaka emakumeren torturan, sexu-sadismoan eta hilketa krudeletan izandako parte-hartzeari -batzuetan, zuzeneko inplikazioari- buruzko erreferentziak.

Ohiko irudikapenak -atso zahar zarpailak, sudur handikoak eta garatxoz josiak, edabe nazkagarriak prestatzen- jazarpena pairatu zuten emakume horien irudi gutxiesgarriak dira, eta, gainera, haien aurkako sarraskien benetako arrazoia minimizatzen eta fribolizatzen dute: lurrak eta etxeak kentzen zizkieten, haien ezagutza-nitxoekin eta bizirauteko moduekin -emaginak eta sendalariak ziren- gelditu nahi baitzuten edo, besterik gabe, elite boteredunaren beharrei erantzuten ez zietelako hiltzen zituzten; izan ere, metodo antikontzeptiboei edo abortuei buruz aholkuak ematen zituztenez eta, ondorioz, emakumeei beren gorputzen kontrola izaten laguntzen zietenez, arriskuan jartzen zituzten kapitalismo patriarkalaren interesak.

Uste dugu gaur egun oraindik ere ez direla behar bezala salatu hilketok.

*Pepa Santamaría*

# ¡Brujas!

En esta exposición no vais a encontrar ninguna mujer subida en una escoba, pero sí la denuncia del maltrato a las aldeanas ancianas, ni vais a ver mujeres satánicas cocinando niños vivos, pero sí mujeres expresando su rabia por los más de 50 asesinatos machistas que se siguen cometiendo cada año en España. No hay tampoco aquelarres satánicos, pero sí referencias a la participación, cuando no implicación directa, de la iglesia católica en la tortura, sadismo sexual y asesinatos brutales de miles de mujeres acusadas de brujería.

Las representaciones de viejas con verrugas, narices grandes, vestidas con harapos, que cocinan pócimas repulsivas, no solamente son imágenes peyorativas de aquellas mujeres que padecieron persecuciones, si no que se minimiza y frivoliza la verdadera razón de las masacres perpetradas contra mujeres para robarles las tierras y las casas, para quedarse con su nicho de conocimiento y su medio de subsistencia (parteras, curanderas), o simplemente por no responder a las necesidades de la élite en el poder, ya que, aconsejando sobre métodos anticonceptivos o abortos y en consecuencia ayudando a las mujeres a tener control de sus propios cuerpos, ponían en riesgo los intereses de capitalismo patriarcal.

Creemos que estos crímenes siguen sin ser denunciados debidamente aún en nuestros días.

*Pepa Santamaría*

# Komisariotza

## Estefanía Ocampos

Arte Sortzaile eta Ikerketako Masterra da, Arte Ederretan lizentziaduna eta diseinatzaile grafikoa. Marrazketa irakasle eta muralista gisa egiten du lan. 2004. urteaz geroztik pintura, eskultura, performanzea eta esku-hartze espezifikoak izan dira bere adierazpide. Arte plastiko guztietan aritzen da. Ez du mugarik aurkitzen bere obretarako tamaina bat edo teknika zehatz bat jartzeko orduan. Argi dauka kontzeptua, emakumea da, beraz berdin maneiatzen ditu orratza zein mazoa: "Hemen nago, zauriak josteko eta harresiak eraisteko prest".

## Esther Galarza

Eibarko udal zeramika eskolako irakaslea da 1983an sortu zenetik. Euskal Akuarelisten Elkarteko Zuzendaritza Batzordeko kidea izan da eta Europako hainbat sinposiotan parte hartu du. La Bisbaleko zeramika eskolan hasi zen ikasten eta Espainiako estatuko beste eskola batzuetan osatu zuen prestakuntza artistikoa. Diziplina anitzeko artista hau aditua da instalazio, eskultura, mural eta esmalteetan. Sormen prozesuan forma borobil eta totemikoak dira nagusi eta lanetan beti agertzen dira irudi femeninoa gogorarazten duten keinuak.

## Sara Beiztegi

Diziplina anitzeko artista da. Emakumearen eskubideak bere banakako erakusketa askoren leitmotiv -a da, hala nola *Sin Norte ni Diosas* Berdintasun Ministeritzan 2009an, *Emociones* eta *841* Carlos III Unibertsitatean, Madrileko Casa Encendida 2009 eta 2013n, *Obstinado Rojo 2016an* eta beste batzuk. Sari ezberdinak lortu ditu eta nazioarteko arte tailerretara joan da. Gaur egun, hainbat proiektutan lan egiten du eta horietan, egungo iruditeria femeninoari buruzko hausnarketa proposatzen du.

# Comisariado

## Estefanía Ocampos

Es Máster en Arte Creación e Investigación, licenciada en Bellas Artes y diseñadora gráfica. Trabaja como profesora de dibujo y muralista. Desde el año 2004 la pintura, la escultura, la performance y las intervenciones específicas han sido su medio de expresión. Se dedica plenamente a las artes plásticas en todas sus formas. No encuentra límites a la hora de poner un tamaño para sus obras o una técnica concreta. El concepto lo tiene claro, es mujer, y maneja la aguja y la maza con la misma habilidad "estoy aquí para coser heridas y derribar muros".

## Esther Galarza

Es profesora de la escuela municipal de cerámica de Éibar desde su fundación en 1983. Formó parte de la Junta directiva de la Agrupación de Acuarelistas Vascos y ha participado en varios simposios europeos. Esta artista multidisciplinar, inició su formación en la Escuela de cerámica de La Biscbal, completando su formación en otras del estado. Es experta en: Instalaciones, escultura, murales y esmaltes. En su proceso creativo surgen formas redondas y totémicas, manteniendo líneas que recuerdan a la figura femenina que siempre está presente en su obra.

## Sara Beiztegi

Es artista multidisciplinar. Los derechos de la mujer es el leitmotiv de muchas de sus exposiciones individuales como las tituladas *Sin Norte ni Diosas* en el Ministerio de Igualdad en 2009, *Emociones* y *841* en la Universidad Carlos III, Casa Encendida de Madrid 2009 y 2013, *Obstinado Rojo 2016* y otras. Ha obtenido diferentes premios y distinciones y asistido a talleres de arte internacional. Actualmente trabaja en varios proyectos en los que propone una reflexión sobre el actual imaginario femenino.

# Artistak - Artistas

## EmPoderArte:

Amalfy Fuenmayor
Ana María Vacas
Andrea Abalia
Ane Arzelus
Asunción Bau
Caroline Krabbe
Cristina Gutiérrez Meurs
Ela Rabasco
Elisabeth Roldán Rojo
Erica Landfors
Estefanía Ocampos
Esther Galarza
Eva Riol
Gabriela Estrada
Goiuri Aldekoa-Otalora
Helena Revuelta
Karolina Kinnander
Leire Kareaga
Luz Velasco
María García del Salto
María Jesús Aragoneses
Marián M. Cañizares
Marina Barrena
Marivi Ibarrola
Marta Girón
Marta Lage de la Rosa
Mercedes Cubas
Miren Atxaga
Monika Rühle
Montse Rodriguez Herrero
Nuria Vicente
Patricia Fridman
Paz Barreiro
Pepa Santamaría
Prado Toro
Rosa Gallego del Peso
Rosa Virgili Abelló
Sandra Parra Cárdenas
Sara Beiztegi
Silvia Martínez Cano
Susana García Ungo
Susana Ribuffo
Viriviana Duncan

## Gonbidatuak - Invitadas:

Ainize Txopitea
Arantza Munita
Dara Bonino
Espe Zabala
Esther Astarloa
Idoia Elosegi
Iratxe Unanue
Itziar Insausti
Maialen Belaustegi
Maitena Salinas Beiztegi
Martina Dasnoy
Miren González Goikoetxea
Natalie Hickey
Oihana Ugarte
Satur Peña
Txaro Arrazola
Txitxi - Arantxa Orbegozo

EM
PODER
ARTE

# Amalfy Fuenmayor

## PIOMBINOKO SORGINA
### La Bruja de Piombino

Arkeologo talde batek aurkitutako emakume baten hezurdura aztertzean, ohartu ziren masailezurrean 7 iltze zituela sartuta. Emakumearen gorpuak ez zuen hil-oihalik ez urnarik. Iltze gehiago aurkitu ziren inguruan, seguruenik arropan sartu zizkiotelako. Aztarna hauek 1200. urte ingurukoak dira.

L'Aquilako Unibertsitateko Alfonso Forgione irakasleak hipotesi bat bota zuen: exorzismo-erritu bat izan zitekeen.

Lan hau "Piombinoko sorginari" egindako omenaldi bat da. Natura maitatzeagatik eta libre izateagatik erail zuten seguruenik. Sorgin esaten zieten emakume hauei... eta berdin egiten dute oraindik ere.

Un grupo de arqueólogos descubrió un esqueleto de mujer que había sido enterrado con 7 clavos en su mandíbula. Los restos de esta mujer se encontraban sin sudario, ni urna. Más clavos se hallaron a su alrededor, muy probablemente porque fueron incrustados en su ropa. Estos restos la sitúan en el año 1200.

Alfonso Forgione, profesor de la Universidad de L'Aquila, es quien lanza la hipótesis de que se pudo tratar de un rito de exorcismo.

Esta obra rinde homenaje a la "Bruja de Piombino", probablemente asesinada por el hecho de amar a la naturaleza, de ser libre. A estas mujeres las llamaban brujas... y siguen nombrándolas así en la actualidad.

www.amalfy.net @amalfyfuenmayor



*Piombinoko Sorgina - La Bruja de Piombino*, 2019
Egurrezko kutxa, garezurra eta hainbat elementu
(Caja de madera, calavera y elementos varios), 20x17x17 cm.

# Ana María Vacas

## SU PURIFIKATZAILEAN ERREKO ZARA
## En el fuego purificador te quemas

Erdi Aroan sarritan erabiltzen zen sua zigor gisa, gaitz guztiak garbitzeko elementutzat baitzeukaten. Heretikoak, bekatariak, disidenteak eta gutxiengo gogaikarrietako kideak akabatu zituzten sutan erreta.

Pentsamendu magikoa, aurreiritziak eta deabrutzearen inguruko sinesteak guztiz zabaldurik zeuden garai hartan, eta sorginkeria-kondena ezarri zieten pertsona ugariri, bereziki emakume igarle, sendalari eta emaginei, inguruan gertatutako hondamendi eta gaitz guztien pagaburu gisa.

Obra honetan, ikusleak bere burua sutan islatua ikusiko du, erretzen ari den sorgin bat balitz bezala.

El fuego, considerado como elemento purificador de los males, fue utilizado como castigo con profusión en La Edad Media. Herejes, pecadores, disidentes y minorías molestas terminaba presas de las llamas.

En esa época en que el pensamiento mágico, los prejuicios y la creencia en la posesión demoniaca, muchas personas, sobre todo mujeres que actuaban de adivinadoras, curanderas, y parteras, fueron condenadas de brujería como chivos expiatorios de todos los percances y desastres que ocurrían alrededor.

En la obra, el espectador se refleja en la hoguera como si de una bruja ardiendo se tratase.



*Su purifikatzailean erreko zara - En el fuego purificador te quemas*, 2019
Akrilikoa ispilu gainean (Acrílico sobre espejo), 30x30 cm.

# Andrea Abalia

## MAGMA MATER # 12. ALOR MORALAZ ETA ANIMALIA-SENAZ
### De lo moral a lo animal

*Alor moralaz eta animalia-senaz obra* 2017an Lagomar museoan erakutsi zen *Magma Mater* seriearen parte da. Irudi barroko eta denboragabeak, guztiz anbiguoak, Lanzaroteko naturan murgildutako irudimenezko unibertso bat osatzen. Horietan, artistak memoria kolektiboak jasotako emakumezko hainbat arketipo interpretatzen ditu, eta bereziki nabarmentzekoa da sorgina eta amalurrarekin (Magna Mater) duen harreman iluna.

Aurpegirik edo bisaia argirik gabeak, pertsonaiek beren izaera basatiari dagozkion erritu bitxiak gauzatzen dituzte maiz, naturaz gaindikoaren susmoa eta kontakizunaren suspentsea elikatzen dute, eta tradizioz emakumeei esleitu zaizkien baldintzatzaile sozialak zalantzan jartzen.

*De lo moral y lo animal* forma parte de la serie *Magma Mater*, expuesta en el Museo Lagomar en 2017. Escenas barrocas y atemporales, cargadas de ambigüedad, configuran un universo imaginario sumergido en la naturaleza de Lanzarote.

En ellas, la artista interpreta diversos arquetipos femeninos heredados de la memoria colectiva, destacando el de la mujer *bruja* por su siniestra relación con la madre tierra (Magna Mater).A menudo sin rostro ni facciones concretas, los personajes orquestan extraños rituales vinculados a su naturaleza salvaje, alimentan la sospecha de lo sobrenatural y el suspense narrativo, poniendo en entredicho condicionamientos sociales tradicionalmente atribuidos a las mujeres.

www.andreaabalia.wordpress.com



*Magma Mater # 12. Alor moralaz eta animalia-senaz - De lo moral a lo animal*, 2016
Argazkia (Fotografía) 88'5x135 cm.

# Ane Arcelus

## ARGIGUNEA
### El claro

Basoko haien lekua argigunea zela esan zitzaien, non argi eta garbi ikusten baitziren eta haien zeregina idatzita baitzegoen. Baina, mugez harantzago, basoa norabide guztietan zeharkatzen zuten beste ibilbide batzuk ere bazeuden. Zein bide aukeratu haien erabakia zen.

Basoko argigunea inguratzen duten zuhaitzek emakumearen forma estereotipokoa sortzen dute: gorputz gazte eta emankor bat, alegia. Hasiera batean kaiola bat badirudi ere, irudikatutako emakumeek erakusten duten bezala, egitura erabat irekia da: ezin ditu barruan harrapatu. Feminitatearen basoaren barrenean nondik ibili pertsonaia bakoitzaren erabakia da.

Se les dijo que el claro era su lugar en el bosque, allí donde se les veía claramente y su papel a desempeñar estaba escrito. Pero había otros caminos más allá de las lindes, atravesando el bosque en todas las direcciones. Era su elección cuál de ellos seguir.

El claro del bosque se presenta rodeado de árboles que construyen la forma estereotípica de la mujer: un cuerpo joven y fecundo. Puede parecer una jaula a simple vista, pero tal y como las diferentes mujeres representadas demuestran es perfectamente permeable. No las contiene. Es elección de cada personaje por dónde andar en el bosque de la feminidad.

www.anearzelus.net @anearzelus



*Argigunea - El claro*, 2021
Inprimaketa digitala luma-kartoian (Impresión digital sobre cartón pluma), 100x70 cm.

# Asunción Bau

## ERRE ZENITUZTENEN ALABAK GARA
### Somos las hijas de las que quemásteis

Mamu bat balitz bezala altxatzen da emakumea, besoak goratuta, hondo ia uniforme batetik.
Iltzeak, hariak, azazkalak, emakumeen eta bertuteen izenak dituzten txartelak.

Emakumeak, emakume bezala, XXI. mende honetan lortu omen duen garaipenaren metafora bat. Mende luzez pairatu dituen zapalkuntza, menderatze eta azpiratzearen zingira likatsutik irteten ari da. Haren atzean, aztarnak, iltze zorrotzak, bizitzari atxikitzeko baliatu dituen azazkalak, lagun dituen bertuteak.

"Adi egon: eskubideak irabazi baino errazago galtzen dira eta" (Simone de Beauvoir).

Mujer emergiendo a modo de fantasma, brazos en alto, de un fondo casi uniforme.
Clavos, hilos, uñas, cartelas con nombres de mujeres y virtudes. Metáfora de la victoria que, en el S.XXI, pretende haber alcanzado la mujer como tal. Emerge del líquido viscoso de la opresión, sumisión y postergación en que ha estado confinada. Tras de sí, las huellas, clavos punzantes, uñas con las que se ha aferrado a la vida, virtudes compañeras.

"Permanezcamos alertas: Los derechos se pierden más deprisa que se ganan" (Simone de Beauvoir).

www.asuncionbau.com



***Erre zenituztenen alabak gara - Somos las hijas de las que quemásteis*, 2019**
Akrilikoa mihise gainean (Acrílico sobre lienzo) 100x81 cm.

# Caroline Krabbe

## AZKEN SORGINA
### La última bruja

Anne Palles izan zen Danimarkan sorginkeria egotzita legez exekutatu zuten azken sorgina, 1693an. Hainbat akusazio egin zizkioten: agente judizial bat sorgintzea, nekazari batzuen uztak madarikatzea eta hondatzea eta emakume bat hil zen istripua eragitea, guztia ere magiaren bitartez.

Gaur egun, sorgin-ehizak ohikoak dira Afrikako zati handi batean, Indian eta Papua Ginea Berrian. XXI. mende honetan, sorginkeriaren kontrako legeak daude zenbait herrialdetan. Edonola ere, Saudi Arabian baino ez dute jarduera hori heriotzarekin zigortzen.

Anne Palles fue la última bruja danesa ejecutada legalmente por brujería en Dinamarca en el año 1693. Fue acusada de haber encantado a un agente judicial; de maldecir y así echar a perder las cosechas de algunos campesinos; y de haberle provocado un accidente mortal a una mujer, todo esto mediante el uso de la magia.

Hoy día la caza de brujas sigue siendo común en gran parte de África, India y Papúa Nueva Guinea. En pleno siglo 21 aún hay países en los cuales existen leyes en contra de la práctica de la brujería, no obstante, el único país donde ésta se castiga legalmente con la pena capital es Arabia Saudita.



*Azken sorgina - La última bruja*, 2019
Errotuladorea eta papera, 27 cm-ko diametroa (Rotulador y papel, 27 cm. diámetro)

# Cristina Gutierrez Meurs

## IGNÍFUGA

**Ignífuga atzo bizirik atera zen, gaur bezala, eta, egungo garaiak ikusirik, baita bihar ere. Jakintsua izan nahi zuen eta mila urteko sagar bati kosk egin zion. Madarikazioak jaso zituen horregatik, eta erbestera bidali zuten. Geroago, ezerren jabe, berarena ezik, haren atzetik ibili ziren otzandu ezin zutelako.**

**Horrenbeste emakume sutan erraustu zituzten urte lazgarri haien lekuko izanda, haren ikonoak garrasi isila baina iragarlea botatzen du: bizirik nago, hau da nire garaipena.**

Ignífuga es una superviviente de ayer, de hoy y, visto los tiempos que corren, también de mañana. Quiso ser sabia y mordió una manzana milenaria. Resultó maldita por ello, desterrada. Más tarde, desposeída de todo excepto de ella, fue perseguida al no ser domesticada.

Testigo del horror de aquellos años en los que el fuego convirtió en cenizas a tantas mujeres, su icono lanza un grito callado y, sin embargo, premonitorio: estoy Viva, esta es mi Victoria.

www.cristinagutierrezmeurs.blogspot.com.es

www.lataller.com.es



*Ignífuga*, 2019
Modelatzeko orea, kotoia, guata eta egurra. Dimentsio aldakorrak
(Pasta de modelar, algodón, guata y madera. Dimensiones variables)

# Ela Rabasco

## FARMAZIALARIA
### La farmacéutica

**Emakumeen jakituria osasunaren zerbitzura. Sorginek sendabelarrak ezagutzen zituzten, gorputza nolakoa zen bazekiten, ezagutza medikoak zituzten. Eskuz prestatzen zituzten sendagaiak. Gaur eta atzo. Lehen sorgin esaten zitzaien, egun farmazialariak dira.**

Los saberes de las mujeres puestos al servicio de la salud. Las Brujas, ellas sabían de hierbas, conocían el cuerpo, tenían conocimientos médicos. Ella prepara, artesanalmente, remedios para la salud. Hoy como ayer. Las antes llamadas Brujas, hoy son Farmacéuticas.

www.artistasdelatierra.com/artistas/ElaRqueR

@elarrabasco_ela_r_que_r



***Farmazialaria - La Farmacéutica***, 2014
Argazki digitala mihisean inprimatua (Fotografía digital impresa en lienzo), 40x60 cm.

# Elisabeth Roldán Rojo

## MULIER

**M*ulier* obra "esplizitu" bat da, gizonentzako telazko zapiekin egindakoa. Helburua ikusleak bere ondorioak libreki ateratzea da, horiek "bideratu gabe".**
**Obran, kontuan izan beharreko elementu oso garrantzitsu batzuk daude. Oinarria gurutziltzatutako emakume bat da, baina hori identifikatzeko behar-beharrezko diren datuak baino ez dira erabili, hala nola "Mulier" (emakumea) dioen kartela. Beste elementu garrantzitsu bat obraren bazter batean ageri den suaren zantzuak dira, hori zen-eta sorginak erailtzeko ohiko metodoa. Lotura azkarraren bila.**
**Emakumeei emakume izate hutsagatik gertatzen zitzaien eta, tamalez, oraindik gertatzen zaien horren laburpen egokia.**

M*ulier*, es una obra "explícita" realizada en pañuelos de tela de hombre, pretendiendo en todo momento que el espectador obtenga una conclusión propia al verla, "sin influenciarlo".
En la obra hay elementos muy importantes a tener en cuenta, partimos de la base de que es una mujer crucificada, usando eso sí, los mínimos rasgos para su identificación, pero con un letrero que reza "Mulier" (mujer). El otro elemento importante es el inicio del fuego en una esquina de la obra, forma más común de asesinar a estas brujas. Buscando una rápida asociación.
Siendo un buen resumen de lo que sucedió y desgraciadamente sigue sucediendo con las mujeres por el simple hecho de serlo.

@elisabeth.roldan.58




***Mulier*, 2019**
Brodatua oihalezko zapi gainean (Bordado sobre pañuelo de tela), 157x198 cm.

# Erica Landfors

## DE NATURA

**Materialei dagokienez asmo esperimentala duen obra honetan berriz ere ekarri nahi dugu gogora emakume jakintsuen (sorginak), naturaren eta giza gorputzaren arteko lotura.**

**Sorgin esaten zieten emakumeek oso ondo ezagutzen zituzten sendabelarrak eta horien gaitasunak. Bazekiten zer landarek eragin zitzaketen abortuak eta nola, bai eta zeintzuk hartu behar ziren errazago haurduntzeko.**

**Lotura hori galdu egin zen gizarte kapitalista iritsi eta sorgin-ehiza hasi zenean.**

En esta obra de intención experimental en cuanto a los materiales utilizados queremos evocar la conexión entre las mujeres sabias (brujas), la naturaleza y el cuerpo humano.

Las mujeres llamadas brujas tenían conocimientos sólidos de las propiedades de las plantas. Conocían por ejemplo qué plantas y de qué manera podían provocar abortos o ayudar a concebir.

Esta conexión se perdió con la llegada de la sociedad capitalista y la caza de brujas.

www.ericalandfors.com @eriintheclouds



***De natura***, 2019
Aparra, alanbrea, artilea eta pita, nylonezko mediak Diametroa: 55 cm. Sakonera: 7 cm.
(Espuma, alambre, lana y cuerda de pita, medias de nailon. Diámetro: 55cm. Profundidad: 7cm.)

# Estefanía Ocampos

## HAUSTURAK
### Fracturas

**Zatikatze batzuen bitartez adierazitako gorputzaren irudikapen batzuk. Gorputz zatitu hauek desitxuraketa fisiko, psikologiko eta sinbolikoa irudikatzen dute, oraindik ere "gorputz soziala" delakoaren defentsan indarkeria fisikoa justifikatzen duen gizarte batean. Barnean bizitza eta kanpoan orbainak daramatzan gorputz bat. Emakume estigmatizatu eta zatikatua.**

**Obrak emakume baten gorputza irudikatzen du, hainbat emakumeren gorputzen zatiak erabilita. Barnekoaren eta kanpokoaren arteko bitasuna lantzen du, emakumea zutik eta konponduta irudikatzen du, haren barren zatituarekin kontrajarrita.**

Una representación del cuerpo que supone unos procesos de fragmentación. Estos cuerpos fragmentados simbolizan la distorsión física, psicológica y simbólica, en una sociedad que todavía justifica la violencia física como defensa del "cuerpo social". Un cuerpo contenedor de vida y continente de cicatrices. La mujer estigmatizada y fragmentada.

La obra representa un cuerpo de mujer, creado con fragmentos de diferentes mujeres, trabajando con la dualidad entre el interior y el exterior, muestra la imagen de la mujer erguida y reparada, en contraste con sus interior fracturado.

www.drawfolio.com/es/portfolios/eocampos @fanidfanidad



***Hausturak - Fracturas***, 2019
Teknika mistoa: collage digitala, akrilikoa eta tinta egur gainean. Poliptikoa
(Técnica mixta: collage digital, acrílico y tinta sobre madera. Políptico), 160x82 cm.

# Esther Galarza

## BOTERETIK BAZTERKERIARA
### Del poder a la marginación

**B*oteretik bazterkeriara.* Emakume talde bat; haien buru-oihalen bidez Eibarko gremioen garaian zuten estatus soziala adierazten da.**
**Aurreko mendeetan eta 1738ra arte, alargun batzuek hildako senarren tokia hartu zuten Errege Armategian armagin maisuen kategoriarekin, harik eta gizonezko armagin maisuek praktika hori debekatzeko eskatu zuten arte. Ordutik aurrera, semeek baino ezingo zituzten postu horiek hartu, beharrezko zituzten ikasketak amaitu eta gero.**

***Boteretik bazterkeriara* obrarekin Eibarko Portalea kultura-etxeko "Eibarko emakumeen aztarnak" erakusketarekin elkarrizketan jardun nahi izan dut.**

D*el poder a la marginación*. Grupo de mujeres que por medio de sus tocados representa el estatus social que ostentaron en la época gremial de Eibar.
En los siglos previos y hasta 1738 algunas viudas ocuparon los asientos de sus difuntos maridos en la Real Fábrica de Armas, en calidad de maestras armeras, hasta que los maestros armeros solicitaron la prohibición de esa practica, estableciendo que sólo sus hijos varones podían ocupar tal puesto después de realizar el aprendizaje estipulado.

Mi obra *Del poder a la marginación* dialoga con la exposición "Huellas de las mujeres eibarresas" en la casa de Cultura Portalea de Eibar.



***Boteretik bazterkeriara - De poder a la marginación*, 2018**
Eskultura multzoa, 1.260º-ko gres-orea eta esmalteak. 60x30 cm. bakoitza.
(Conjunto de esculturas, pasta de gres y esmaltes de 1260º. 60x30 cm. c/u.)

@esther_galarza_berasueta

# Eva Riol

## METAKETA
## Acumulación

**Sei emakumeren aurpegiak, ezkutatutako nortasun bat. Arima eta egiaren distira isilduak, ernatu eta ezarritako ordena gainditzen dutenak: pasibotasuna, obedientzia, kastitatea, austeritatea, ama-sena. Emakume ikusezinak, balio oroz gabetuak, planorik ezkutuenean existitzen direnak.**

Seis caras de mujer, una identidad velada. Destellos de alma y verdad silenciados que despiertan y superan el orden impuesto: pasividad, obediencia, castidad, austeridad, instinto materno. Mujeres invisibles, anuladas de todo valor, que existen en el plano más oculto.

@_evariol_



***Metaketa - Acumulación***, 2019
Paper gaineko marrazkien bidez egindako bideoa
(Vídeo realizado a través de dibujos sobre papel)

# Gabriela Estrada Deisolbi

## SORGINEN AURPEGIA
### La cara de las brujas

**S*orginen aurpegia* lanean, kolore eta tonu desberdinetako olio-pinturazko pintzelkada multzo batek aurpegia jartzen dio Elizaren agintari gorenetako bati.**
**Sorgin-ehiza xaxatu eta kultura patriarkala sustatu zuen botere kanonikoaren kritika bat, gaur egun ere izutu eta itotzen gaituen begirada misogino baten adierazle.**

En *La cara de las brujas*, un juego de pinceladas al óleo de diferentes colores y tonalida- da cabida al rostro de uno de los actores de la máxima autoridad eclesiástica.

Una crítica al poder canónico a favor de la cacería de brujas e impulsor de una cultura patriarcal, que aún en nuestros días nos muestra una mirada misógina que nos estremece y ahoga.

www.deisolbi.com @deisolbiartist



***Sorginen aurpegia - La cara de las brujas*, 2019**
Olio-pintura oihal gainean (Óleo sobre tela), 50x40 cm.

# Goiuri Aldekoa-Otalora

## ATZOKOKAKA (MOXAL)

**Ilunetik argiaren bilaketarako bidaia? Emakumeak bidearen bila? Alemaniar espresionismoa? Errealitate magikoa? Mundu paganoa ezerezean galtzen? Sorginak indarrez gatoz?**
**Sorgina, sortu hitzetik dator? Sortzaileak gara? Feministak harrapalan gatoz?**

**Anaïs Nin-ek esan zuen "Ez ditugu ikusten gauzak diren bezala, garen bezala ikusten ditugu" . Eta hau da interesatzen zaidana nire lana erakusten dudanean. Interpretazioa zabala eta aukera ezberdinen iradokitzailea izan dadila. Hoiek entzun eta nire obraren errealitatea eraikitzen dut, lan honekin hori egin dut.**

La busqueda de la luz desde la oscuridad? Mujeres buscando el camino? Expresionismo Aleman? Realismo mágico? El mundo pagano perdiendose en la nada? Las brujas volvemos con fuerza? Sorginak, de sortu, crear? El feminismo galopando?

Lo dijo Anaïs Nin: " No vemos las cosas como son, vemos las cosas como somos" y es lo que me interesa cuando expongo mi obra. Que la interpretación sea abierta , que sugiera diferentes posibilidades y escucharlas. Asi construyo la realidad de mi creación y de esta en concreto.

@guxuri



*Atzokokaka (Moxal)*, 2019
Musika bideklipa (Videoclip musical) 4´50´´

# Helena Revuelta

## MALLEUS MALEFICARUM - CUM PRIVILEGIO VITIOSI

**Obra honetan Inozentzio VIII.a aita santua ageri da, "Malleus Maleficarum" liburuaren azalean. Aita santuak baginako udare bat du eskuan: tortura-tresna hori ahoan, baginan edo uzkian sartzen zitzaion biktimari eta, behin barruan, ireki egiten zuten, eta urradura latzak eragin. Alegoria ironiko honen bidez, "MM" idazteko ankerkeria ikaragarri eta misoginoa islatu nahi izan dut.**

**Erretratua egiteko aita santuaren koadro zahar bat erabili dut inspirazio-iturri gisa, eta "MM" liburuaren egile Heinrich Kramer inkisidorearen bizioa eta ankerkeria zitala erakutsi nahi izan ditut. "MM" sorgin-ehizetarako erreferentziako eskuliburua izan zen XV. mendean. Inozentzio VIII.a aita santuak aintzatespen ofiziala eman zion "MM" liburuari "Summis Desiderantes Affectibus" buldarekin, eta horrela abiarazi zen idatzi haren arrakastarako bidea.**

Esta obra muestra al Papa Inocencio VIII, retratado en la portada del libro "Malleus Maleficarum". El Papa sujeta en la mano una pera vaginal, instrumento de tortura que se introducía, bien por la boca, la vagina o por el ano y una vez en el interior se abría produciendo terribles desgarros a la víctima. He reflejado en esta irónica alegoría, la espeluznante y misógina perversión con que fue escrito el "MM".

El retrato lo he realizado inspirándome en una antigua pintura del Papa, plasmando el vicio y la retorcida perversión del ideólogo del "MM", el inquisidor, Heinrich Kramer. El "MM" fue el manual de referencia para perseguir la brujería en el siglo XV. El Papa Inocencio VIII con su bula "Summis Desiderantes Affectibus" otorgó el reconocimiento oficial al "MM", dando el pistoletazo de salida al manuscrito.




***Malleus Maleficarum - cum privilegio vitiosi*, 2019**
Mistoa: Eskuz koloreztatutako pintura digitala taula gainean muntatutako paperean (Mixta: Pintura digital iluminada a mano sobre papel montado sobre tabla), 50x37'5 cm.

www.helenarevuelta.com @revueltadigitalart

# Karolina Kinnander Ciempiés

## EMAKUME BURUASKIA
### mujer autosufciente

Gaur egungo "feminazi" terminoa aztertuta ("feminista erradikalak" izendatzeko erabiltzen da, "ahalik eta abortu gehien eragiteko" helburua dutenak; wikipedia) eta «sorgin» hitzaren mespretxuzko erabilerarekin alderatuta, komunean dutena adierazi nahi izan dut, emakume buruaski eta libreari beldurra, alegia.

Nire birramonaren amona ageri da "sorgin" rolean, eta neska bat, Rose, "feminaziarena" egiten. Konposizioan uztartu ditut irudi hieratiko eta denboran finkatu bat, apur bat pixelatua, eta beste irudi bat, egungoa, mugimenduarekin, sigi-sagaka...

Analizando el término actual "feminazi" (se refiere a "feministas radicales" cuyo objetivo es "ver que haya tantos abortos como sea posible". Wikipedia) y comparando su uso despectivo con la palabra bruja he querido representar lo que tiene en común, el miedo a la mujer autosuficiente, que es libre.

Se trata de mi tatara-tatarabuela, en el papel de "Bruja", y he buscado una chica, Rose, que me sirviera de modelo "Feminazi". He elaborado la composición de una figura hierática y firme en el tiempo, levemente pixelada y la otra figura, la actual, con movimiento, más serpenteante...

www.ukama.info › 2018_Ciempies @cienpieskarolina.k




***Emakume buruaskia - Mujer autosuficiente*, 2019**
Mistoa mihise gainean: infografia, pintura, collagea (Mixta sobre lienzo: infografía, pintura, collage), 150x100 cm.

# Leire Kareaga

## ETORRI ZEN ISTORIOA ARDURATU ZEN GAINERAKOAZ
## La historia que vino se encargó de lo demás

Silvia Federiciren "Caliban eta sorgina" liburuak Piero de la Francescak "Kristoren zigorraldia" 1444 eta 1469 artean margotu zueneko Europara narama, edo Jan van Eyckek Giovanni Arnolfini merkatari aberatsa eta haren emazte Giovanna Cenami erretratatu zituenekora.

Alegia batean bezala, nire protagonistak, animaliak, lehen aipatutako artelanen moduan kokatu ditut. Konposizio bakar batean egin dut hori, biak bateratuta.

Dürer-en "Nekazarien zutabea" pinturaren goiko aldean, akerra nekazarien ikurra da. Oinarrian, ahuntz heretikoa eta haren erru bakarra, ordena ezarriarentzat deserosoa izatea. Gainerako pertsonaiek ez dute azalpenik behar.

"Caliban y la Bruja" de Silvia Federicci me lleva a la Europa donde Piero de la Francesca realiza "La flagelación de Cristo" entre 1444 y 1469 o Jan van Eyck retrata al rico mercader Giovanni Arnolfini y a su esposa Giovanna Cenami.
Como en una fábula dispongo a mis protagonistas, los animales, de igual manera que los personajes de las obras antes mencionadas. Lo hago en una sola composición, en un mismo tiempo.

En lo alto de "La columna de los campesinos" de Durero, un macho cabrío representa al campesinado. En la base, la cabra hereje, sin más culpa que resultar incómoda al orden establecido. El resto de los personajes hablan por sí mismos.

www.leirekareaga.eus




*Etorri zen istorioa arduratu zen gainerakoaz - La historia que vino se encargó de lo demás*, 2019
Akrilikoa mihise gainean (Acrílico sobre lienzo), 130x93 cm.

# Luz Velasco

## SORGIN-ESENTZIA
### Esencia de brujas

S*orgin-esentziak* irudi garaikide bat dakarkigu, estereotipoetatik urrun. Aurpegi definiturik gabeko bi buru, emakumeen eta kulturen unibertsaltasuna irudikatzen duen "askotariko adats" ugarirekin. Artxibo bat? Katalogo bat? Gure eguneroko bizitzan geratzen diren emakume guztien DNAren bilduma bat? Sorginak emakume izateagatik, ahaldunduta egoteagatik, sinesteagatik, borroka egiteagatik, jakintsuak izateagatik, seigarren zentzumen bat izateagatik, maitatzeagatik, ez isiltzeagatik, negar egiteagatik, amore ez emateagatik... sorginak!

Espainiako Errege Akademiaren arabera, deabruarekiko hitzarmen baten ondorioz-edo, indar ezkutuen jabe den pertsona bat da sorgina, baina, benetan uste duzue deabruarekin egingo lukeela hitzarmena? Hona iritsita, EMAKUMEZKO DEABRU bat beharko luke hitzarmenak egiteko.

E*sencia de Brujas*, muestra una imagen actual, alejada de estereotipos creados. Dos cabezas si rostro definido, con una "melena variada", que recrea a la universalidad de mujeres y culturas. ¿Un archivo?, ¿un catálogo?, o un muestrario de ADN de todas aquellas que permanecen en nuestro día a día. Brujas por ser mujeres, por estar empoderadas, por creer, por luchar, por sabias, por tener un sexto sentido, por amar, por no callar, por llorar, por no darse por vencidas... ¡Brujas!

La RAE define la palabra bruja como a una persona con poderes, que práctica la brujería y pacta con el diablo pero ¿aún pensáis que pactaría con el diablo? A estas alturas de la vida pactaría con LA DIABLA.

www.luzvr.com @velasco8174



*Sorgin-esentzia - Esencia de brujas*, 2019
Instalazio mistoa (instalación mixta), 60x60x60 cm.

# María García del Salto

## SUA GUGAN
## El fuego en nosotras

**Sua izan dadila gure memoria, suak manten gaitzala adi.
Ez dezagun inoiz guardia jaitsi...**

Que el fuego sea nuestra memoria,
que el fuego nos mantenga alerta.
Nunca bajemos la guardia...

@mariagarciadelsalto



*Sua gugan - El fuego en Nosotras*, 2019
Akuarela paper gainean (Acuarela sobre papel), 31x41 cm.

# María Jesús Aragoneses

## BARRUAN DARAMAZUN SORGINA
### La bruja que llevas dentro

**Panel hauetan, *emakume sorginen* paradigma jaso dut, *egungo emakumearen* ikuspegitik. Horrela, azaldu nahi izan dut sorginak benetako arrisku bat zirela patriarkatuarentzat haren kontrola mehatxatzen zutelako, eta horregatik sarraskitu zituztela. Sistemaren zirrikituen bidez baliatzen zituzten sorginek beren boterea, egungo emakumeek bezalaxe.**

**Baliteke artelan honi panel gehiago gehitzea hesiak apurtu ahala. Beraz, amaitu gabeko pieza bat da, emakumeek eta horien rolek gizartean duten bilakaera bezalaxe.**

**Panelen atzeko aldea Remedios Varoren obretako emakumeei eginiko omenaldia da, lotura estua baitute egungo sorginekin.**

El paradigma *mujer-bruja* desde la visión de la mujer *de hoy* es lo que recogen los paneles, para explicar cómo las brujas fueron masacradas por ser un peligro real para la pérdida del control por parte del patriarcado. Ellas ejercieron esos poderes a través de los resquicios del sistema, justo como las mujeres de ahora.

La pieza puede ir sumando nuevos paneles a medida que se quiebren las barreras, es por tanto una pieza inacabada como lo es la propia evolución de las mujeres y sus roles en la sociedad.

La parte trasera de los paneles es un homenaje a las mujeres de Remedios Varo, que tienen mucho que ver con las brujas de hoy.

@mjaragoneses





***Barruan daramazun sorgina - la bruja que llevas dentro*, 2019**
Teknika mistoak paper gainean (Técnicas mixtas sobre papel), 200x80 cm.

# Marián M. Cañizares

## ROSATA NOVELLA (THE TROTULA. A MEDIEVAL COMPENDIUM OF WOMEN'S MEDICINE)

**Haurdun geratzeko: arrosa, iltzea, akara, alpinia, intxaur muskatua, zedoaria, storaxa, kanela, berroa, azukrea, erregaliza, basapioa. Trotula Salernokoak XII. mendean haurduntza lortzeko sortu zuen medikuntzako prozesuaren zati bat. Haren testu medikoak eta haren izatea bera sorgin-ehizaren misoginiak irentsi zituen. Horrela, XX. mende hasierara arte Trotulori egozten zitzaizkion idatziak, hots, izena maskulinizatu egin zioten.**

**Sorginaren figuran, Mendebaldeko misoginia hilgarria gorpuzten da. Bertan, gizonak zoramen basati batean erortzen dira, emakumeak, haien ugalketa-gaitasunak, ezagutza medikoak eta bizitzak kontrolatzeko. Trotulak lorearekin lotzen ditu hilekoa, bizitza, sorkuntza, emakumeak, gizonek jabetu, menderatu eta suntsitu nahi duten natura.**

Para concebir: rosa, clavo, nardo, jengibre, galanga, nuez moscada, zedoaria, storax, canela, berro, azucar, regaliz, apio silvestre. Parte del proceso médico para facilitar la concepción creado por Trótula de Salerno en el siglo XII. Sus textos médicos y su figura son engullidos por la misoginia de la caza de brujas, siendo atribuidos a Trótulo (masculinización de Trótula) hasta principios del siglo XX.

En la figura de la bruja, toma forma la letal misoginia de occidente donde el hombre se embarca en una locura salvaje por controlar a las mujeres, sus capacidades reproductivas, sus conocimientos médicos, sus vidas. Trótula identifica la flor con la menstruación, la vida, la creación, las mujeres, la naturaleza a la cual el hombre sólo desea poseer, dominar y aniquilar.



*Rosata Novella*
*(The Trotula. A medieval compendium of women's medicine)*, 2019
Tinta eta koloretako lapitzak paper gainean
(Tinta y lápices de colores sobre papel), 65x50 cm.

# Marina Barrena

## REBELIÓN

**Euskarririk gabeko pintura-lan esperimental hau, bastidoretik kanpo, independentea, beren zentzumenetan konfiantza duten emakumeen izaera enpirikoaren metafora bat da. Emakume jakintsuak dira, ordena soziala asaldatzea leporatzen zaienak, beste batzuek beren gorputzei buruzko erabakiak hartzeari uko egiten diotenak eta etxeko esparrura, gizonen kontrolpean, baztertzen dituen ekonomia kapitalista baten aurrean makurtzen ez direnak, bizitzaren iraunkortasuna mehatxatuz.**

**Menperatze guztietatik askatzeko errebelatzen diren emakumeak dira eta ezarritakoaren aurka borrokatzeagatik jazarriak direnak.**

Esta obra experimental de pintura sin soporte, fuera del bastidor, independiente, es una metáfora del carácter empírico de las mujeres que confían en sus sentidos, mujeres sabias, acusadas perturbar el orden social, que se niegan a que otros tomen decisiones sobre sus propios cuerpos y no se doblegan ante una economía capitalista que las relega a la esfera doméstica, bajo el control masculino, amenazando la sostenibilidad de la vida.

Mujeres que se rebelan y son perseguidas por luchar contra lo establecido, liberándose de todas las dominaciones.

www.marinabarrena.wixsite.com/marina-barrena @marina_barrena



***Rebelión*, 2018**
Berniza, pigmentuak eta bastidorea
(Barniz, pigmentos y bastidor), 35x22x12 cm.

# Marivi Ibarrola

## HEGALDI HANDIA, JAUZIA EGUNSENTIAN USURBILEN (GIPUZKOA)
### Gran vuelo, salto al amanecer en Usurbil (Gipuzkoa)

**Benetakoa eta kementsua da, sorgin guztiak omentzen ditu, subjektu eta adjektibo gisa. Buruargiak eta libreak, antolatu egin dira asperduraren eta erabileraren eta abusuaren menderakuntzaren aurrean. Irudietan zahar eta zarpail ageri dira, hortzik gabe eta hegan egiteko erratzekin...**

**Belarren ezaugarriak ezagutzen zituzten, eta gorputz-arimak sendatzeko jakintza ere. Baina emakumeei ez zieten utzi libre izaten, ohearen hankara kateatu nahi izan zituzten. Sorgin-ehizan, milaka emakumeri beren seme-alabak, etxeak, lurrak eta jabetzak kendu zizkieten. Eta haien sekretu eta ekimenak sutan galdu ziren.**

Es real y vigorosa, homenajea a todas las brujas, como sujeto y como adjetivo. Listas y libres se organizan frente al aburrimiento y al sometimiento del uso y abuso. Se las representa viejas, desaliñadas, desdentadas y con escobas... capaces de volar.

Conocían las propiedades de las hierbas y el saber de la curación del cuerpo y el alma. Pero no se permitió que las mujeres fueran libres, las quiso atadas a la pata de la cama. En la caza de brujas, miles de mujeres fueron desprovistas de sus hijos, casas, tierra y posesiones. Y sus secretos e iniciativas quedaron en la hoguera.

www.delavapiesalacabeza.es



***Hegaldi handia, jauzia egunsentian Usurbilen (Gipuzkoa) -***
***Gran vuelo, salto al amanecer en Usurbil (Gipuzkoa)*, 1982**
Argazkia, 35 mm-ko negatibo batetik, digitalizatua eta glicée inprimaketan positibatua
(Fotografía blanco y negro, negativo de 35 mm digitalizado y positivado en impresión glicée), 73x63 cm.

# Marta Girón

## OTSOEKIN KORRIKA EGITEN DUTEN EMAKUMEAK
## Mujeres que corren con lobos

**Clarissa Pinkolaren Otsoekin korrika egiten duten emakumeak liburuan inspiratuta, Otsoekin dantzan obra emakumea bere alderdi basatiarekin, lurrarekin, sustraiekin eta bere izate propioarekin lotzen duten erraiei buruzkoa da.**

Inspirada en el libro mujeres que corren con los lobos de Clarissa Pinkola, Bailando con lobos alude a las entrañas que conectan a la mujer con lo salvaje, con la tierra, con las raíces, con su propio interior.

www.martagironadan.com @marta_giron_adan



***Otsoekin korrika egiten duten emakumeak - Mujeres que corren con lobos***, 2015
Teknika mistoa argazki-paperaren gainean (Técnica mixta sobre papel fotográfico), 30x40 cm.

# Marta Lage de la Rosa

## IN MEMORIAM MULIERIS

**Betiereko sua suontzian, sorginkeria egotzita bidegabeki erail zituzten emakume guztien omenez. Itzaltzen ez diren sugarren bidez omentzen dira gerretan hildakoak, eta presente egoten dira leku espiritual edo erlijiosoetan ere, jainkotasunaren ikur gisa.**

**Heraklito filosofo grekoak uste zuen suak suntsitzeko balio bazuen ere, berritzeko ere balio zuela. Sugarrak zentzumenei dei egiten die eta, behatzen dugunean, beti da desberdina. Sugar hau izan dadila leialtasun sinbolikoaren argia. Suak piztuta jarrai dezala, betiereko ohorea emakumeen oroimenari!**

Pebetero con llama eterna en memoria de las mujeres que fueron acusadas de brujas y asesinadas injustamente. Las llamas encendidas conmemoran a los caídos en batallas y también están en lugares espirituales y religiosos como símbolo de la divinidad.

Para Heráclito, filósofo griego, el fuego era además de un agente de destrucción un agente de renovación. La llama encendida invita a relacionarse con ella a través de los sentidos: a su contemplación siempre distinta. Que esta llama encendida sea un campo de luz de lealtad simbólica. Que el fuego permanezca encendido en ¡Honor eterno a su memoria!




www.sites.google.com/site/martalagedelarosa

@martalagedelarosa

***In Memoriam Mulieris***, 2019
Bioetanol perfumatuzko suontzia eta hondar-zurrustaz grabatutako kristala (Pebetero de bioetanol perfumado con cristal grabado con chorro de arena), 21x36x19 cm.

# Mercedes Cubas

## NISORGIN
### Yobruja

Sorgin garratza, bizitzaren idiosinkrasia.
Kateak puskatu eta historia ehundu zuten Jainkosa adoretsu borrokalariengandik biluzik, aske, eta indartsu jaio ginen. Ez dugu zure oniritzirik behar, are gutxiago zure baimenik, osorik, beterik eta lasai gaude.

